

Gure proiektua aurrera eramateko hainbat baliabide behar ditugu, zehazki, 4 motatako baliabideak: Baliabide fisikoak, baliabide intelektualak, giza-baliabideak eta finantza-baliabideak. Hasteko, baliabide fisikoak azalduko ditugu. Hauek, oso garrantzitsuak dira izan ere, hauei esker gure produktua kontsumitzaileari erakusten eta eskaintzen zaio. Hau lortzeko, bi modutara egin dezakegu. Alde batetik, ikastetxean aurkeztu eta bestetik, sistema informatikoak erabilia, hau da, webgune bat sor dezakegu. Orain, Baliabide intelektualak aurkeztuko dizkizuegu. Bertan, datu baseak eta patentea agertzen dira. Datu-basea beraien artean zerikusia duten datuen bilduma da, datuak gorde eta ondoren modu erraz eta egituratuan eskuratzea ahalbidetzen dituena eta patentea berriz, [aurkikunde](#) bat egin duenari Estatuak ematen dion [agiria](#) da, aurkikunde horren onurez bera bakarrik balia daitekeela adierazten duena. Jarraian, giza-baliabideak aipatuko ditugu. Hauek, 3 dira. Alde batetik, sormena. Bestetik, ezagutza eta azkenik, gaitasun komertziala. Baliabideekin bukatzeko, finantza-baliabideak ditugu. Baliabide mota hauek bi motatakoak izango dira: esku-dirua eta kreditu-lineak.